# izki

parke naturala




**Sorrera:** 1998ko maiatzaren 4an izendatu zuten parke natural.
**Azalera:** 9.143 Ha. **Kokapena:** Probintziaren hego-ekialdeko muturrean, Arabako mendialdean. **Administrazio Batzarrak:** Apinaiz, Antoñana, Atauri, Arluzea, Bujanda, Korres, San Roman Kanpezu, Maeztu, Markiz, Kintana, Urarte, Urturi eta Birgara
**Helbideak:** Gasteiztik. Helbide nagusietako bat A-132 bidea da, Gasteiztik Lizarrarakoa, Maezturaino. Bernedo-Trebiño A-126 errepidetik ere hel daiteke.
**Altitudea:** Punturik gorena Kapildui mendiarena da (1.175 m) eta beherena Bujandarena (600 m).




## Ostatu eta jatetxeak

INFORMAZIOA
**Parkeko etxea.** Korres.
Tel/Fax: 945379048
e-mail: parqueizki@parquesalava.net
webgunea: www.alava.net

NEKAZALTURISMOAK
**Basabide Etxea.** Markiz.
Tel: 945379048
**Aitonaren Etxea.** Urturi.
Tel: 945378147
**La Casa de los Artilleros.** Urturi.
Telf: 945378174
**Biltegi Etxea**. Alda.
Tel: 945406042
**Arantza Etxea.** Hijona.
Tel: 945293094
**Villa de Elezpara.** Apinaiz.
Tel: 945410235

LANDETXEAK
**Izki.** Maeztu.
Tel: 945410388
**Yoar.** Santa Kurutze Kanpezu.
Tel: 619377174
**Ibernalo.** Santa Cruz de Campezo.
Tel: 945415022
**Arkupetxea.** Antoñana.
Tel: 945250582
**Basarte Etxea.** Faido.
Tel: 945403238

GRANJA ESKOLA
**Lurkoi.** Leortza.
Tel: 945410032

TURISMO AKTIBOKO ENPRESA
**Izki Aventur.** Bernedo.
Tel: 608875508

ATERPETXEAK
**Alojamientos Okón.** Bernedo.
Tel: 945378180
**Lagraneko Udaletxea.** Lagran.
Tel: 945378059
**Kanpezuko parrokia.** Santa Kurutze Kanpezu.
Tel: 945415096

KANPALEKUAK
**Lagraneko Udala.** Lagran.
Tel: 945378059
**Okongo Amapren Patronatua.** Bernedo.
Tel: 945378043

JATETXEAK
**Garimotxea.** Urturi.
Tel: 945378121
**Hoyo 19.** Urturi.
Tel: 945378177
**Arrieta.** Bernedo.
Tel: 945378005
**Frontón.** Lagran.
Tel: 945378019
**Vírgala.** Birgaragoina.
Tel: 945410153
**Izki.** Maeztu.
Tel: 945410388
**Los Roturos.** Maeztu.
Tel: 945410250

## Eguraldiaren informazioa

**Hozberoen koadroa**

| | Udaberria | Uda | Udazkena | Negua |
|---|---|---|---|---|
| Batez bezteko gorena | 25,2 | 36,4 | 27,4 | 16,3 |
| Batez besteko beherena | 9,2 | 17,3 | 11,9 | 4,4 |

## Ikurren azalpena

Begiratokia · Landa arkitektura · Leizea · Baseliza · Multzo historikoa · Harresiak · Dorretxea-Gaztelua · Zubi historikoa · Gune arkeologikoa · Zuhaitz bakana · Informazioa · Parkeko Etxea · Astialdi gunea · Jatetxeal · Golf zelaia · Nekazalturismoa · Hotela / Landetxea

## Zidorrak

| Kolorea | Zidorrak | Distantzia | Iraupena | Zailtasuna |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 1. Bujanda | 3,5 km | 1 ordu | Baxua |
| 2 | 2. San Román | 4,5 km | 1 ordu 40 min | Ertaina |
| 3 | 3. Ullibarri | 3,3 km | 53 min | Baxua |
| 4 | 4. Renabar | 4 km | 1 ordu 10 min | Baxua |
| 5 | 5. Los Arrieros | 10,3 km | 3 ordu | Baxua |
| 6 | 6. El Paseo | 2,1 km | 40 min | Baxua |
| 7 | 7. Marizurieta | 8,6 km | 2 ordu 20 min | Baxua |
| 8 | 8. Botondela | 8 km | 2 ordu 30 min | Ertaina-Baxua |
| 9 | 9. Los Molinos | 2,9 km | 50 min | Baxua |
| 10 | 10. Txarabitana | 5,3 km | 1 ordu 45 min | Baxua |
| 11 | 11. El Cartero | 5,6 km | 1 ordu 50 min | Baxua |
| 12 | 12. Sarrondo | 4,3 km | 1 ordu 15 min | Baxua |
| 13 | 13. Larrabila | 5 km | 1 ordu 40 min | Ertaina |
| 14 | 14. El Agin | 3 km | 1 ordu 15 min | Ertaina-Handia |
| 15 | 15. Antoñana | 4,1 km | 1 ordu 15 min | Baxua |

L A D — **LOTURA:** zidorren artean **ALDAERA:** hautabidea **DERIBAZIOA:** zidorretik toki batera

## Debekatuak

- Sua piztea eta egurra ebakitzea
- Motordun ibilgailuekin ibiltzea, baimendutako esparruetatik kanpo.
- Edozelako zakarra bertan uztea edo/eta lurperatzea.
- Aparkatzea, baimendutako zonetan izan ezik.
- Naturako elementuak hondatzea, aldatzea edo/eta kentzea.
- Tresnak eta ibilgailuak ibaietan, aintziretan edo erreketan garbitzea.

## Aholkuak

- Txango bati ekin aurretik, har ezazu informazioa ibilbidearen zailtasunari eta eguraldiaren iragarpenari buruz. Parkeko etxeak eta langileak zure zerbitzura dituzu.
- Isilik paseatzea eta animalien ohiturak ezagutzea (prismatikoak badaramatzazu eta kolore biziko jantzirik ez baduzu, errazagoa izango zaizu animaliak behatzea).

Izkiko Parke Naturalak (1998an izendatu zen) 9143 Ha dauzka, eta paisaia desberdin ugari eta natura eta kultura altxor pilo bat dauzka.

16 zidorreko sareari esker, parke natural honetako paisaia ederrak aurkitzeko ez eze, flora eta faunari behatzeko eta lurralde honetan bizi izan ziren eta bizi diren pertsonen tradizioak eta kultura hautemateko aukera izango du ibiltariak.

Aukeran daude, gainera, zailtasun txikiko zidorrak eta zailtxoagoak direnak. Luzeak eta laburrak. Denetatik bisitaria puntu interesgarri desberdinetara heltzen da baina. Bat baino gehiago dira bide zaharretatik doazen ibilbideak –Sarrondo, Antoñanako zidorrak...-, naturgune honetako herri ederrak lotzen dituztenak: Korres, Antoñana, Bujanda, Maeztu...

Zenbait zidor amezti zabalean sartzen dira –Ullibarri, Renabar, El Paseo, Larrabila...–, eta nabarmenena Mandazainena da, ehun urtetik gorako bidetik basoa Apinaizetik Kintanaraino zeharkatzen baitu. Isilik joanez gero, ameztien gerizpean, okil ertainaren kantua zein  baso igel jauzkariaren korroka entzun daiteke. Zorioneko izanik, basurde handia ere iheskorra ere ikus liteke. Kareharrizko harkaitz handiak –Soila, La Muela, Kapildui...–, ibilbide hauetako askotatik ikusten dira.

Agin eta El Cartero zidorretatik bisitaria zuhaitza monumental eta bitxietara gerturatzen da: ezki, hagin, gaztainondoak...., pertsonen historiaren ehunka urteren lekuko, Parkean eta inguruetan dauden monumentu desberdinen bidez igar daitekeen historiaren lekuko: Leize-zulo artifizialak, monolitoak, gazteluen aiurriak, zubiak, errotak, guztiak eskueran zidor desberdinetatik joanez gero: San Roman, Marizurieta, Bujanda, Botondela, Los Molinos, Txarabitana...

Horrela, baso eta mendietatik, ibai eta latsen ondotik, harkaitzen artetik paseatuz, argi eta garbi ulertzen da zergatik den Izki gaur natura eremu babestua. Aldi berean, artatu behar dela ulertzen laguntzen du, etorkizuneko belaunaldiak zidor horietatik ibiltzen direnean, naturazko balore guztiez gozatzen segitzeko aukera izan dezaten.

## 1. Bujanda zidorra

Korres eta Bujanda artean

| | |
|---|---|
| Distantzia: | 3,5 km |
| Denbora: | 1 ordu |
| Zailtasuna: | Baxua |




Zidorra Korresen hegoaldean hasten da, Balearen leize-zuloaren inguruetan. Handik metro batzuetara ezkerretako pista hartzen da, heskaiz apaindutako bide batetik. Sakanaren ibilbide bihurgunetsutik duela ia ehun urte eraikitako Aranbaltzako urtegira heltzen da. Ibaiaren bideari segitzen zaio, La Muela eta Soilako kareharrizko paretatzarren artetik, eskuinetara Antoñanako zentral hidroelektrikoa hornitzen duen ur kanala gurutzatu arte. Puntu honetan Izki ibaiak eratutako sakaneko haltzadi zoragarria nabarmentzen da. Handik berehala pista uzten da, ezkerretara dagoen eta Soila eta Castillo harkaitza ikusten deneko soilune batean amaitzen den zidorra hartzeko.

Ondoren, Izki ibaia zeharkatzen da, Lagabia ibaitik, eta zidorrari segitzen zaio, Villanuevako mendi-muinoa eta Fraidearen sakana eskuinetara lagata. Hortik bi bide irteten dira, bata ezkerretara, ibaira jaisten dena eta bestea eskuinetara, Mendi Ilunerantz doana, la Muelaren magalean.

Ibiltzen jarraituz, haizpitartearen ostean eremu irekiagoa dago, Bujandatik gertu jada, bidea inguratzen duten labore eta heskaiekin.

Aranbaltzeko urtegia



## 2. San Roman zidorra

Korres eta San Roman Kanpezu artean

| | |
|---|---|
| Distantzia: | 4,5 km |
| Denbora: | 1 ordu 40 min |
| Zailtasuna: | Ertaina |




Korreseko harraska zaharretik irten eta Balearen leize-zuloko harkaitz zuloraino doan pistatik jarraitzen da. San Martineko haitzetatik behera segitzen da, ezkerretara desbideratu arte, Izki latsa zeharkatzen duen zubi batetik. Ulibarriko zidorra eskuinetara utzi eta zati zuzen batetik segitu ondoren, pista utzi eta ezkerretara gorantz egiten duen bide hareatsua hartzen da. Eremu irekietatik eta ezkamezti eta ezpeldun hariztietatik igaro ondoren, zidorra bitan banatzen da, eskuinekoak La Casillako mendatera iristeko aukera eskaintzen du.

Aurrera jarraituz, La Muela de San Romanerantz doan aldapa pikoa igotzen da, La Casillako mendimuinora heldu arte. Behin hor, eskuinetara egin behar da, sastraka artean aurrea egin eta San Roman hiribildurantz jaisten hasteko.

**Alternatibak:**
La Casillako mendi-muinotik mendebalderantz El Santo haitza inguratzen duen zidorraren aldagai bat hasten da. Handik metro gutxira haitzaren aterpe batean dagoen kripta txikiraino, San Roman baselizaraino hel daiteke. Zidorrera itzuliz pixka bat igo eta bidea zabaldu eta pagadi batean sartzen da.

Jaitsiera hasten da eta, legar hobi zahar batera heldu baino lehen, zidorra eskuinetara desbideratzen da, eta sasi lautada bateraino garamatzan igoera leuna hasten da, gero ezkerretara desbideratu eta ..... prestatu deneko harkaitz tontorrera iristen da. Zidorra Castejon izenez ezagutzen den parajera jaisten da, non San Roman zidorrarekin topo egiten duen.

La Casillako mendatea



## 3. Ullibarri zidorra

Korresen inguruetatik (Monasterioa) El Cura pagoraino

| | |
|---|---|
| Distantzia: | 3,3 km |
| Denbora: | 53 min |
| Zailtasuna: | Baxua |




Zidorra Korresen hegoaldean hasten da, "Monasterio" izenaz ezagutzen den mugartean, San Martin haitzen azpian. Errepidea zeharkatu eta Izki ibaia gurutzatzen da, Artikuzubiako zubitik, pista bateraino  heldu arte, eta han ezkerretara hartzen da. Zeharkatu den errepidetik Harkaitzeko Amaren harkaitz malkar baten gainean, eta Mantxibioren hegoaldeko magala, zeinen azpian Roya harkaitza dagoen. Bideak bira egiten du, eskuinalderantz bihurgunea marraztuz, eta Mendizorrotz mendia ezkerretara uzten du (urkidi interesgarria hazten den tokian), mendebalderantz. Ganadu itxitura zeharkatu eta bidetik jarraitzen da, finka bat inguratuz, beste itxitura batera heldu arte.

Parkeko benetako protagonista eta Europako zabal eta onenetakoa den Izkiko ameztiaren ateetara heltzen da. Bidea utzi eta zidor txiki bat hartu ondoren, Izkiren adarreko bat, Yermanda ibaia gurutzatzen duen zubira heltzen da. Hortik aurrera, ez da ezer falta helmugara El Cura pagora heltzeko. Heldu baino pixka bat lehenago, Izkiko mendietan barrena sartzen den Mandazainen sendabidearekin bat egin daiteke.

Mantxibio mendia



Bide zidorrak




Arabako Foru Aldundia · Diputación Foral de Alava

Bide zidorrak

natur guneak
araba

# izki

parke naturala


**Diseinua:** Idea y Vino S.L.
**Testuak:** Ekos, ingurumen aholkularitza eta ikerkuntza.
**Argazkiak:** Joseba del Villar.
**Kartografiaren diseinua:** Gorosti Neurketak S.L.
**Koordinaketa:** Luis Alfonso Quintana
**Inprimaketa:** Arabako Foru Aldundiko Inprimategia.
**Edizioa:** Arabako Foru Aldundia. Hirigintza eta Ingurumen Saila.
**Lege gordailua:** VI-XXX-2004.

Obra Social Caja Vital Vital Kutxa Gizarte-Ekintza
Arabako Foru Aldundia. Hirigintza eta Ingurumen Saila · Diputación Foral de Alava. Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente
Proyecto cofinanciado por el FEDER
FEDERek ordaindutako proiektua